

Proposamenaren izenburua:

*Kia ora, takatāpui:*  
māoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotzen.

Aurkezlea: Beñat Garaio Mendizabal

## LABURPENA

---

Hizkuntza-lankidetzak mundu osoko hizkuntza-komunitate ezberdinak elkartzen ditu, norberaren jatorrizko hizkuntza gutxituak biziberritzeko helburua partekatzen dutenez gero. Euskalgintzak eta, oro har, Euskal Herriak, historikoki harreman gehiago izan du Europako eta gaztelaniaz mintzo diren Amerikako nazioekin, hainbat arrazoi direla medio. Edonola ere, Aotearoa edo Zeelanda Berriak antzekotasun eta ezberdintasun interesgarriak ditu Euskal Herriarekin alderatuta eta berdina gertatzen da gure hizkuntza biziberritze prozesuak alderatuz gero. Hau honela, Te Puna Wānanga erakundearen egingo den ikerketa egonaldi honek maoriera eta euskararen biziberritze prozesuak elkarlotu nahi ditu, elkarrengandik ikasi eta elkarlan-ildoak abian jartzeko helburuarekin. Hau guztia, gainera, UNESCOren Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkadaren hastapenean izango da, munduko hizkuntza aniztasunarentzako mugarri izan daitekeen aroan.

## IKERKETA-EGONALDIAREN AZALPENA

---

Hizkuntza-lankidetzak bereziki garrantzitsua izan daiteke biziberritze prozesuetan, bai hizkuntzaren aldeko ekimen berriak sortu, bai indar gehigarriak lortzeko. Hizkuntza-lankidetzak tradizio zabala du Euskal Herrian, eta mundu osoko hizkuntza-komunitateen arteko lankidetzan oinarritzen dute hainbat ekimen eta erakundek euren jarduna. Gurean, Garabide Elkartea eta Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra dihardute arlo horretan lanean, euskararen biziberritze prozesuaren nondik norakoak partekatu eta komunitate ezberdinen arteko elkarlana bultzatuz. Esan liteke euskal hizkuntza lankidetzak eta euskara biziberritzearen aldeko mugimenduak harreman estuagoa duela gaztelaniaz ere hitz egiten duten beste nazio batzuekin, hala nola, Espainiako Estatuko hizkuntza gutxituekin eta lehen aipatutako Amerikako jatorrizko nazioekin.

Hizkuntza-lankidetzak mundu zabaleko herri, komunitate, hizkuntza eta eragile askoren artean garatzen ari den fenomeno da. Lankidetzak horrek arrakasta

izan dezan, funtsezkotzat jotzen den faktoreetako bat elkarlanean dauden bi aldeak antzeko prozesuak, testuinguruak eta erronkak partekatzea da.

Euskararen eta maorieraren hizkuntza-komunitateek hainbat antzekotasun dituzte, hala nola, herrialdeen maila sozioekonomikoa eta hizkuntza gutxituak gizartean duen babesa. Bestalde, ezberdintasun nabarmen batzuk ere baditu, esaterako, jatorrizko-kulturak (Ozeaniakoa, alde batetik, europarra, bestetik) eta kultura nagusiak (anglosaxoia eta latina, bestetik).

Aipatu arrazoiengatik, historikoki ez da apena maorien eta euskaldunen arteko hizkuntza-lankidetzarik egon. Soilik Imanol Minerrek bere kabuz jorratutako bidea aipatu liteke, 2016 urtean egonaldi bat egin baitzuen *Aotearoan*. Hau honela, Te Puna Wānanga ikerketa-sailean egingo litzatekeen egonaldi hau bi hizkuntza komunitateentzako estrategikoa izan daitekeen hizkuntza-lankidetzaren fase berri baten hastapenean kokatu ahalko genuke.

*Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxa Gazte Saria* funtsezko akuilua litzateke egonaldi honen bitartez abiatuko den elkarlan hau bultzatzeko. Gainera, oso momentu historiko berezi batean izango litzateke egonaldi hau, izan ere, UNESCOk 2022 urtearen hondarrean abiatu zuen Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Hamarkada eta mundu mailan hizkuntza aniztasuna eta biziberritzea sustatzeko mugarria izatea espero da.

Egonaldi hau mugarria litzateke, halaber, hautagaiarentzako ere, sari honek ahalbidetuko liokeen aukera profesional eta pertsonal honek abian jarri dituen lan-ildo batzuei bultzada esanguratsua emango liokeelako.

## **IKERKETA-EGONALDIAREN KOKAPENA**

---

Aucklandeko Unibertsitateko *Te Puna Wānanga*, edo Ikasketa eta Hezkuntza Maoriaren Departamendua, *Aotearoan* dagoen gisa honetako erakunderik handiena da eta herrialdean maoriera biziberritzeko eragile garrantzitsuenetariko bat da. Lotura estua du maorian alde diharduten eragileekin eta zubi-lana egiten du Zeelanda Berriko Gobernuarekin.

Nabarmendu beharra dago Te Puna Wānanga Stephen May<sup>1</sup> adituak zuzentzen duela, hizkuntza biziberritzean mundu mailako erreferentea. Maoriera hizkuntzarekin duen konpromiso eta ibilbideaz gain, hizkuntzen biziberritzearen esparruan eragin eta ospe handia izan duten artikulu eta liburuak argitaratu ditu azken hamarkada hauetan.

---

<sup>1</sup> Ohar gisa, 2018az geroztik Stephen Mayrekin harremanetan egon naiz Te Puna Wānangan ikerketa egonaldi bat egiteko aukera arakatzeko eta beraien onarpena izan nuela hasieratik, covidak ezinezko bihurtu zuen arren.

## HELBURU OROKOR ETA ZEHATZAK

---

Honako hauek dira ikerketa-egonaldi honen helburuak. Helburu orokorren azpian gehitu dira arlokako helburu zehatzak:

- **Maoriaren biziberritze prozesuaren indargune eta lorpenak identifikatu eta bi prozesuen arteko elementu komunak aztertu**
  - o Hizkuntzen biziberritze prozesua modu baikorren aztertzeko lan-ildoak garatzea
  - o Hizkuntza gutxituetako hiztun-profil klasikotik haragoko begirada aztertu eta sustatzea, hautagaiaren CV-an aipatu den Mugaldeetan Mugalari proiektuaren harira
  - o Atzerriko hizkuntza gutxituetako komunitateei ebidentzia berriak eskaintzea hizkuntza biziberritzearen eremuan
- **Maoriaren biziberritze mugimendua osatzen duten erakunde eta eragileen mapa osatu eta bateko eta besteko eragile ezberdinen arteko elkarlana bultzatu**
- **Maorien eta soziolinguistika anglosaxoiaren ikuspuntu filosofiko-akademikotik ikasteko aukera eman eragile euskaldunei**
  - o Euskalgintzari baliagarriak izango zaizkion tresna, lan-molde eta ondorioak eskuratzea
  - o Gizarte zientzietan garatutako berrikuntza metodologiko eta teorikoak euskal soziolinguistikara ekartzea

## METODOLOGIA

---

Zehaztutako helburuak lortzeko bidean, hainbat izango dira ikerketa-egitasmo honetan erabiliko diren metodoak:

- Maoriaren biziberritze mugimenduaen kapital sozial eta kulturalak identifikatzea, *Community Capitals Framework* ereduaren erabiliz
- Biziberritze prozesuaren diagnostiko baikorra egitea, Arakatzeko Apreziatiboa metodologiaren bidez
- Aztergaiaren esku-hartzea bultzatzea ikerketaren bitartez, Ekintza-Ikerketa metodologia baliatuz

Metodo hauek denak ikerketa honen ezaugarrietara moldatuko dira eta Eusko Ikaskuntzaren *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5)*<sup>2</sup> proiektuan erabilitako tresna metodologikoa gaurkatzeko eta jarraipena emateko ere balioko du.

Bestalde, azpimarratu beharra dago gaurkotasun handieneko soziolinguistika ikerketa, teoria eta metodoak baliatuko direla, proiektuaren kalitatea bermatu eta ekarpen gehigarri bat egiteko asmoz.

---

<sup>2</sup>Ikus <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/proyectos/euskararen-etorkizuneko-eszenarioak-elkarrekin-eraikitzen/pr-4/>

## KRONOGRAMA

Hauek dira proiektu honetan aurreikusten diren mugarriak:

- Iturri teoriko eta metodologikoak jorratu
- Ikerketa-egonaldiaren behin betiko diseinua prestatu
- Egonaldia prestatu
- Ikerketa-egonaldia Aotearoan
  - Bertako egoera soziolinguistikoa ezagutu, euskararen egoera oinarri hartuta
  - Maoriaren aldeko eragileak ezagutu
  - (aukerakoa)<sup>3</sup> Hawai'i<sup>4</sup> eta Australiara<sup>5</sup> bisitak egin, bertako errealitate eta eragileak ezagutzeko
- Ondorioak landu
- Argitalpena prestatu
  - RIEV eta Euskonews-en artikulua bana
  - Nazioarteko inpaktu handiko aldizkari batean argitaratu
- Emaizten hedapena
  - Aurkezpen eta argitalpenak komunikabide eta foro ezberdinetan
  - (aukerakoa) Webgunea osatu eta bertan Aotearoako eragileen mapa, bi komunitateen arteko antzekotasunen deskribapena eta eragileen testigantzak gehitu

Hilabeteak	2023				2024					
	5-6	7-8	9-10	11-12	1-2	3-4	5-6	7-8	9-10	11-12
<b>Egitekoak</b>										
<b>Iturri teoriko eta metodologikoak jorratu</b>	x	x	x							
<b>Ikerketaren behin betiko diseinua</b>			x	x						
<b>Egonaldia prestatu</b>			x	x	x					
<b>Egonaldia Aotearoan</b>					x	x	?			
<b>Ondorioak landu</b>						x	x	X		
<b>Argitalpena prestatu</b>								x	x	
<b>Emaizten hedapena</b>									x	x

<sup>3</sup> Ohar bezala: Zeelanda Berriko bizitza-kostuak aintzat hartuta, hautagaiaren egoera ekonomikoak edo balizko finantzazio gehigarriak ahalbidetuko du goiko mugarren artean (*aukerakoa*) bezala jarritako ekintzak egin ahal izatea eta egonaldia luzatzea.

<sup>4</sup> Ikus <http://ling.hawaii.edu/research-current/langdoc/>

<sup>5</sup> Ikus <https://www.firstlanguages.org.au/about>

## ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

---

- AMORRORTU, Esti; GOIRIGOLZARRI, Jone eta ORTEGA, Ane (2021). “Ekintza-ikerketaren partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 120. zenb., 11-26 or.
- ANZALDÚA, Gloria (2016). *Borderlands. La frontera*. Madril: Capitan Swing.
- BASTÉ GARCÍA, Damià (2015). “Repensar la Indagación Apreciativa desde la perspectiva de su plasticidad”, *doktoretza tesia* Universitat Ramon Llull-en.
- COMAJOAN-COLOMÉ, Llorenç eta CORONEL-MOLINA, Serafín M. (2021). “What does language revitalisation in the XXI century look like? New trends and frameworks”, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 42:10. zenb., 897-904 or.
- FLORES FARFÁN, José Antonio eta CRU, Josep (2021). “Reviewing experiences in language (re)vitalisation”, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 42:10. zenb., 941-954 or.
- GARAIÓ, Beñat eta PENMAN, Robbie (2021). “Making Links: Learning from the Experience of Others in Language Revitalisation”. In J. Olko & J. Sallabank (Edk.), *Revitalizing Endangered Languages: A Practical Guide*. Cambridge: Cambridge University Press, 178-196 or.
- GOIRIGOLZARRI, Jone; LANDABIDEA, Xabier eta MANTEROLA, Ibon (2017). *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU.
- GOIRIGOLZARRI, Jone; MARKO, Iñaki eta MANTEROLA, Ibon (2021). “e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria”, *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, 132. zenb., 473-495 or.
- GRENOBLE, Lenore A. eta WHALEY, Lindsay J. (2021). “Toward a new conceptualisation of language revitalization”, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 42:10. zenb., 911-926 or.
- POSOCCO, Lorenzo eta WATSON, Iarfhlaith (2022). “Speaking Irish and belonging among Irish-speakers of diverse ethnicity and nationality in Ireland: a pilot study”, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 1-15 or.
- RIGGINS, Stephen H. (1997). *The language and politics of exclusion: Others in discourse*. Thousand Oaks, CA: Sage.